

Bezeroekiko harremana



ENDERTEKA NEGOZIO EREDUA



Nola erakarriko ditugu bezero berriak, eta nola mantendu eta hazi araziko ditugu bezero horiek?


Konbinazio bat egitea erabaki dugu, **zerbitzu automatizatua** webgunearen eta sare sozialen bitartez eta **aurrez aurreko zerbitzua** ere eskainiz, bezeroak gure zerbitzua ezagutu eta hautatu dezaten.

Nolako harremana mantenduko dugu?

Bezeroekin harreman hurbila mantenduko dugu, haien erosotasuna bermatuz eta haien konfiantza bereganatuz. Harreman estua mantentzeko hainbat tresnaz baliatuko gara:

WEB-A ETA SARE SOZIALAK

Aurreko atalean azaldu bezala, gure **sare sozialen** eta **webgunearen** bitartez, negozio ereduaren informazioa, gurekin hitz egiteko aukera...izango dute bezeroek.



INKESTA

Urtean behin, **inkesta** txiki bat pasako zaie gure bazkide guztiei, haiek gure zerbitzua ebalua dezaten, haien **xede** eta **nahiak** agerian utziz.



TELEFONO ZENBAKIA

Gainera, edozer gauza behar izanez gero, eguneko **24 orduak** erabilgarri egongo den doaineko telefono zenbaki bat izango dugu.



Erreklamazio orriak

Beste enpresetan bezala, nahi izanez gero, beti egongo dira eskuragarri erreklamazio orriak gure instalazioen sarreran, kexak salatzeko edo kritika konstruktiboak agerian uzteko.



Harreman estua mantentzeak, epe luzera negozioaren hazkuntza suposa dezake.

Bezero bakoitzarekin harreman estu eta pertsonalizatu bat izateak, epe luzera **onurak** ekar ditzazke, izan ere, haiek dira gure negozioaren **protagonistak**.

